

MITSUBISHI SPACE STAR DI-D

Monobolumen erakargarria

Orain merkaturatu da Euskal Herrian,
duela bi urte atera arren



Intercooler motorrak ditu Space Star monobolumenak.

MITSUBISHI SPACE STAR DI-D

Motorra: F9Q1 (zortzi balbuletako SOCH turbointercoolerra)
Zilindrada (cc): 1.870
Gehieneko potentzia: (kw/cv/rpm): 75/102/4.000
Erregaia: Diesela
Gehieneko abiadura (km/h): 185
Azelerazioa 0-100 km/h (s): 12
Kontsumoa hirian/ hiritik at/ konbinatua: 7,5/ 4,6/ 5,5
Balazta motak: 7" eta 8" tandemeko serbobalaztak.
Aurreko /atzeko balaztak: 14" bentilatutako diskoak / 14" trinkotutako diskoak
Pneumátikoak: 185/65R14 86H
Maletatokiaren bolumena (l): 250
Salneurria: 2.574.000 - 2.924.000

Atera zutenetik bi urte pasatu ondoren, Euskal Herriko merkatura iritsi da Mitsubishi Space Star DI-D autoa. Injekzio zuzeneko diesel auto hau monobolumen trinkoen alorrean aitzindaria dugu. Space Star DI-Dk ondo konbinatzen ditu barrualde zabala eta aldaketak egiteko eskaintzen duen aukera, eta motorrak ere erantzun ona eskaintzen du.

Auto honek familia baten asmo guztiak aseko ditu; izan ere, modelo honek bertute ezin hobeak erakusten ditu gidatzeko orduan, ziurtasunean, barruko espazioaren aprobetxamendu apartan eta injekzio zuzeneko turbodiesel motorrean (120 zaldiko 1.9 DI-D motorra du).

Errail bateratuaren bidezko

injekzio zuzeneko motorrek merkaturan interes handia piztu dute. Honen ondorioz, Mitsubishi etxeak zabaltu egin du bere eskaintza arlo horretan.

Motor berriak —Intercoolearra du eta turboelikatua da— 1,9 litroko zilindrada du, eta errail bateratuaren bidezko injekzio zuzena gaineratzen du.

Injekzioak eragiten duen presio handiak erregaiaren atomizazio hobe ahalbidetzen du,

eta ondorioz, zilindroetan nahasketa hobeak lortzen dira. Space Star DI-Dk 4.6 litro kontsumitzen ditu 100 kilometrotan.

Alboetako aire poltsa

Ate alboetako barreneko babesari, hiru lekutan lotzen den ELR gerrikoari, alboetako aire poltsak gaineratu behar zaizkie Space Star DI-Dko goi mailako saileko autoetan. 30 km/h abia-

duran albotik kolpe bat jasoz gero, aire poltsa hauek askatu egiten dira.


Barrualdean, atzeko eserlekuak 150 mm mugi daitezke aurrera edo atzera. Erabat tolesteko modua ere badago, eta bizkaraldea egokitzeko lau aukera eskaintzen ditu. Berrikuntza moduan Space Star autoak GPS nabigazio ekipoa du. Tresneria honek gidatzeko erraztasun ikaragarriak eskaintzen ditu.

INTERO BERRIA AURKEZTU NAHI DIZUGU.

ASPALDITIK. ESO ASPALDITIK INER IRITSI EZ DEN TEKIRA ERAMANGO ZAITU.



Noranhiko ibilgailua duten guztiei erabilera askotako esku-argia emango diegu opari, bisitan etortzen zaizkigunean.



ALDIKAR AUTOAK

Gipuzkoarako Mitsubishi Motors Kontzesionario Ofiziala
Oria Ibiltokia, 6. 20160 LASARTE Tel: 943.37.65.15

DONOSTIA
Pº de Colón 27 bajo
20002 DONOSTIA
tel: 943 27 09 99

ARRASATE
Zigorrola 1, Pab. 1
20500 ARRASATE
tel: 943 71 20 02

ELGOIBAR
C/ Olaso, 23
20870 ELGOIBAR
tel: 943 74 20 37

